



EKONOMIAREN GARAPEN,  
JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA  
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza  
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia  
Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO  
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE  
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental  
Dirección de Calidad Ambiental y Economía  
Circular

## TEKNOLOGIA GARBIEEN EUSKAL ZERRENDA EGUNERATU ETA ONARTZEN DUEN AGINDUAREN PROIEKTUA LANDU AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Teknologia Garbien Euskal Zerrenda eguneratu eta onartzen duen Aginduaren Proiektua lantzen hastea aurreikusi du.

Administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikulua 1. zenbakian ezarritakoari jarraikiz, legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzaketen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarriek puntu hauei buruz:

- Ekimenaren bidez konpondu nahi diren arazoak.
- Onarpenaren beharra eta egokitasuna.
- Arauaren helburuak.
- Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzailerik eta ez-erregulatzailerik.

Gobernu Kontseiluaren 2017ko abenduaren 12ko Erabakiaren bidez, araugintza-xedapen orokorrak lantzeko prozeduraren aplikazioari buruzko jarraibideak onartu ziren. Jarraibide horietan ezarri zenez, aurretiazko kontsultaren izapidea Xedapen Orokorra izapidetzea sustatu duen zuzendaritza-organoak edo zuzendaritza-zentroak bete ahal izango du, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Egoitza Elektronikoko iragarki-taulan iragartzearen bidez.

Aurrekoa betez, eta landu aurretik, honen bidez herritarrei eskatzen zaie Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoko iragarki-taulan argitaratuko den Eranskinean jasotako informazioari buruzko iritzia emateko.

Gasteiz, sinaduraren eguna.

**Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendaria**  
**Sin.: JAVIER AGIRRE ORCAJO**  
(Sinadura elektronikoa)

Donostia – San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz Tel.: 945 01 98 06





# TEKNOLOGIA GARBIEEN EUSKAL ZERRENDAREN EGUNERATU ETA ONARTZEN DUEN AGINDUAREN PROIEKTUA LANDU AURREKO KONTSULTA PUBLIKOA

## 1.- EKIMENAREN BIDEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK:

Euskadin, Eusko Jaurlaritzaren (Ekonomia eta Ogasun Sailaren eta Ekonomiaren Garapen, Iraunkortasun eta Ingurumen Sailaren bitartez) eta hiru foru-aldundietako zerga-organoen arteko lankidetzan estu eta arinari esker, euskal produkzio-sarean ingurumen-portaera hobea duten ekipamenduak ezartzearen bidez produkzio-prozesuen efizientzia bultzatzen duen zerga-tresna bat dago. Tresna hori Teknologia Garbien Euskal Zerrenda da, eta zuzenean lotuta dago indarrean dauden plan, programa, estrategia eta legeekin.

Ildo horretan, 2006. urteaz geroztik, martxoaren 14ko 64/2006 Dekretuak Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren erregulazioa ezartzen du, ingurumenaren ikuspegitik lehentasuna duten teknologiak zein diren identifikatzeko. Horrela, zerga-politika horietara bideratu ahal izango da, bi ildotan: batetik, zerga-neurrien bidez teknologia horiek enpresen ekoizpen-prozesuan barneratzea sustatuko da; eta, bestetik, gastu-politika ezarriko da.

Adierazitako Dekretuak xedatzen duenez, Zerrendan sartu beharreko teknologiak ingurumen-arloan eskumena duen Sailaren prospekzio aktiboaren bidez hautatuko dira, industria-arloan eskumena duen Sailaren laguntzarekin, eta Zerrendaren onarpenak eta eguneratzeak haren hirugarren artikuluan zehaztutako edukia jaso beharko du, bertan ezarritako irizpideak kontuan hartuta.

Esparru horretan, ingurumen-arloan eskumena duen sailburuaren 2006ko ekainaren 30eko, 2012ko irailaren 10eko eta 2016ko uztailaren 13ko Aginduen bidez onartu zen Teknologia Garbien Euskal Zerrenda.

Teknologiak, haien ezaugarriak eta haien ezarpen-maila aldatu egiten dira denborarekin. Dagoeneko 6 urte joan dira azken eguneratzea egin zenetik, eta zerrendako teknologia batzuek jada ez dituzte betetzen 64/2006 Dekretuan ezarritako irizpide batzuk. Aldi berean, zerrendaren bidez betetzen ziren eta ingurumen- eta energia-plangintzen bidez islatzen ziren Eusko Jaurlaritzaren behar batzuk bilakatu egin dira. Bi faktore horiek zerrendan bildutako teknologiak eguneratu behar direla iradokitzen dute. Ildo horretan, zaharkituta daudenak kendu eta ingurumen- eta energia-plangintzaren zerbitzurako teknologia berriak txertatu beharko dira.

Proposatutako aginduaren helburua da arau-ondarean teknologien zerrenda eguneratu bat txertatzea.

## 2.- ONARPENAREN BEHARRA ETA EGOKITASUNA

Euskadiko ingurumen- eta energia-plangintzak ingurumen- eta energia-helburuak lortzeko tresna gisa txertatu du Teknologia Garbien Euskal Zerrenda.

Euskadiko Ekonomia Zirkularrerako Estrategia 2030 izenekoak, 5.4 jarduketa-lerroan, Teknologia Garbien Euskal Zerrendari buruzko agindu berria lantzea ezartzen du, honako hau txertatuta: *“baliabideen erabileran efizienteak diren teknologiak eta bigarren mailako materialak teknologia garbien zerrendan sartzeko azterlana”*. Jarduera hori, halaber, Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren 2024 Planean jasota dago. Zehazki, honako hau planteatzen du 5. jarduketa-lerroaren 26. puntuan: *“bigarren mailako material eta teknologia efizienteak teknologia garbien zerrendan sartzeko azterketa”*. Ildo berean, Euskadiko Hondakinak Prebenitu eta Kudeatzeko 2030eko Planak honela azpimarratzen du Teknologia Garbien Euskal Zerrenda 9. lan-ildoan: *“hondakinen proiektuek finantziazioa lor dezaten errazteko, tresna ekonomikoak eta fiskalitate berdekoak garatzeko, materialen eta bigarren mailako produktuen lehiakortasunari laguntzeko eta isurketari pizgarriak kentzeko funtsezko tresna”*.

Era berean, 2050erako Klima Aldaketaren Euskadiko Estrategiak honako hau jasotzen du 14. jarduera-lerroaren 38. ekintzan: *“Ingurumenaren arloko zerga-sistemaren neurriak definitzea eta abian jartzea (adibidez, isuri-kanona, ordainketa sortzeagatik, tasa lehengaiak erauzteagatik), baita zerga-pizgarriak ere, hondakinen sorkuntza minimizatzeke, baliabideak erauzteke eta zabortegean uzteke”*.

Azkenik, energia-plangintzaren esparruan, 2030erako Euskadiko Energia Jasangarritasunaren Estrategiaren 1. jarduketa-lerroko 1.1.1.5 ekimenak honako hau ezartzen du: *“energia-aurrezpenaren sustapena ETEetako energia jasangarrian inbertitzeko zerga-pizgarrien bidez”* (hala nola Teknologia Garbien Euskal Zerrendaren bidez).

Tresna baliagarria izan dadin, beharrezkoa da teknologiak eguneratuta eta plangintzen beharrek inbertituratuta egotea. 64/2006 Dekretuak berak adierazten duenez, *“Zerrenda dinamikoa izan dadila nahi da, aldi-aldi eguneratu daitekeena; horrek nahi dena da zerrendan jaso daitezela soilik ingurumenaren aldetik eragimen handiena duten teknologiak, eta zerrendatik kanpo utzi ahal izan daitezela ingurumenaren ikuspuntutik begiratuta hobek diren beste teknologia alternatibo batzuek dagoeneko gaindituta dauden teknologiak”*.

## 3.- ARAUAREN HELBURUAK

- 2016an onartutako teknologien zerrenda eguneratzea, honako helburu hauekin:
  - Zaharkituta dauden teknologiak kentzea.



- Plangintzetan ezarritako helburuak lortzeko teknologia berri garrantzitsuak txertatzea.

#### **4.- IZAN LITEZKEEN BESTELAKO AUKERA ERREGULATZAILE ETA EZ-ERREGULATZAILEAK**

Agindua eguneratzea funtsezkotzat hartzen da tresnak bere helburua bete dezan; 64/2006 Dekretuaren arabera, helburua da sektore publikoak *“ingurumenaren ikuspuntutik lehentasunezkoak diren teknologiak”* sustatzea.

Ez da alternatiba ez-erregulatzailearik planteatzen, baina aginduaren onarpena alternatiba ez-erregulatzaileekin osatzea planteatzen da. Ildo horretan, zerrendaren bertsio berria behar bezala zabaltzeko elementu osagarriak garatuko dira hainbat mailatan.

Jarduera horien barruan, araua onartu ondoren zabaltzeko jarduerak daude, eta, agindua izapidetzeko prozesuarekin batera, azterketa batzuk egingo dira, zerrendaren kostuaren eta efizientziaren arteko erlazioa eta ingurumen- eta energia-helburuetarako ekarpena hobetzea ahalbidetuko duten hobekuntzak identifikatzeko. Egin daitezkeen hobekuntzen artean, egungo zerrendaren norainokoa zabaltzea eta tresnaren kudeaketa administratiboa arintzeko hobekuntza operatiboak aipa daitezke. Hobekuntzei buruzko azterketa horien bidez, etorkizunean 64/2006 Dekretua bera eguneratzeko proposamen bat sor liteke.